



BILDU DIRA

Iosu Agirre Gurrutxaga, alkatearen aurrean adierazi ondoren berak ordezkatzeko duen elkarteak ez dagoela estatutuen 2003ko azaroaren 17ko 38/2003 legeak aurreikusitako debeku kasuetan, bi aldeek elkar behartzeko ahalmena aitortu eta ondorengo

ADIERAZI DUTE

1. Xaxau Kultur Elkarteak 2025eko apirilaren 12an, Bergarako Erramu Zapatuko feria egunean, herri bazkaria antolatu eta aurrera eramateko prest azaldu da, eta horretarako aurrekontua aurkeztuta udalari laguntza eskatu dio antolatzeke.

2025 ERRAMU ZAPATUKO HERRI BAZKARIKO AURREKONTUA

GASTUAK		2023
Janaria		
Patatak		300,00
Urdazegia		280,00
Harategia		280,00
Harategia		280,00
Urdazegia		800,00
Edanak		785,00
Okundegiak		450,00
Janan begainoa		200,00
txanpinoiak		290,00
Bidezko merkatantizako kafe eta azukrea		85,00
Olaskoak hereteko sagardoa		2.420,00
Zeluloak		100,00
7 kartak eta Komunikazioa		
Inprenta		80,00
Besteak		
Garraioak (autopista...)		100,00
Izotzak		50,00
Elkartea (txorzo eta kafe prestatzea)		50,00
Ezbeharrak		100,00
Antolatzaileak		
30 pertsona * goma		3.800,00
Segurua		300,00
GASTUAK GUZTIRA		10.330,00

[illegible]

AURREIKUSITAKO GALERA/IRABAZIAK:	-70,00
----------------------------------	--------

2. Bergarako Udalak positiboki baloratzen duela ekintza hori.
3. 2025eko apirilaren 7an Bergarako Udalak dekretuz erabaki du laguntza ematea, 4.200,00€ko diru-laguntza barne, eta bi aldeen betebeharrak hitzarmen batean jasotzea.

Beraz, honako hitzarmen hau egitea erabaki dute, ondorengoak izanik

KLAUSULAK

Lehena.- Xaxau Kultur Elkarteak 2025eko apirilaren 12an Erramu Zapatuko herri bazkaria antolatuko du Bergaran (dokumentu honi eransten zaio aurkeztutako gastu eta diru-sarreraren aurreikuspena).

Bigarrena.- Bergarako udalak honako betebeharrak izango ditu:

- Herri bazkaria aurrera eramateko Udal Pilotalekuko lurra estaltzeko langile 1 jarriko du Udalak apirilak 11an 21:00 - 22:30 bitartean (beste 6 jarri beharko ditu Xaxau-k). Udaleko langileak koordinatuko du muntaia eta beharrak sortu ezker, horiei aurre egin beharko die.
- Bazkarirako 466 lagunentzat mahaiak eta aulkiak utziko dizkie (77 + 4 mahai zerbitzariarentzako eta 466 aulki) Udalak ekitaldiko antolatzaileei udal pilotalekuan, aldezturik prestatutako planoan jasotzen den eran antolatuta. Baita ondorengoak ere:

- Kubiertoak etab. 466 lagunentzako
- Platerak
- Sardeskak
- Kutxiloak
- Edalontziak
- Bandejak
- Burduntzaliak
- Kutxillo handiak
- Guraizeak
- Serbilletak
- Mahaiak estaltzeko paperezko mantela.
- 4 sutegi bonbonekin
- Sutebietatik lurra babesteko 3 pale eta bi txapa handi.
- Zerrautsa (2 zaku)
- 2 balde zabal samarrak (kupelen azpian jartzeko).
- Komunikabideetan bazkariaren zabalpena egitea. Xaxau elkarteak antolatzaile moduan eta Bergarako Udala laguntzaile moduan egingo da zabalpena.
- Hondakinen bereizketarako ontziak:
 - Ontzi arinak: 120 litroko bat
 - Organikoak: 60 litroko lau
 - Papera: 120 litroko bat
 - Errefusa: 120 litroko 2
- 2 palet erreketarako lurra babesteko.
- 5 erratz.
- 3x3ko karpa 1
- Jasotzeko pala
- Garbitzeko trapuak eta eskuetako bobinak
- Zabor poltsak
- Sopladore 1





Bergarako
Udala

- 10 hesi frontoiko takilen kanpoaldean.
 - 2 poltsakada zerrauts
 - Gomak lotzeko zinta amerikanoa eta erdiko zinta.
 - Frontoiko argia erabiltzeko 2 alargadore.
-
- Frontoiko lehilatila aurrean 12 m²-ko tokia uztea parrillak jartzeko.
 - 10 hesi hori frontoiko takillen kanpoaldean utzi
 - Frontoiairen garbiketa
 - Argindarra

Hirugarrena.- Bergarako Udalak aipatutako ekitaldiak aurrera eramateagatik 4.200,00€ko diru ekarpena egingo dio Xaxau Kultur Elkarteari, lurra babesteko gomak jartzea eta behar den aseguruia kontratatzeko laguntza barne, beraz, ez da beste fakturarik ordainduko ekitaldia antolatzeke kostuengatik.

Diru ekarpen hori bi zatitan ordainduko da. Lehenengo zatia (2.520,00€, diru-laguntzaren %60) diru-laguntza onartu ondoren.

Bigarren zatia berriz (1.680,00€, %40), jaia amaitu ondoren, ondorengo pasartean aurkeztutako dokumentazioa aztertu eta Udalak ontzat eman ondoren.

Diru ekarpenaren bigarren zatia jasotzeko honako dokumentuak aurkeztu beharko ditu Xaxau Kultur Elkartek:

- a. Dirulaguntza ordaintzeko eskabidea
- b. Balantzea izandako diru-sarrera eta gastuak jasotzen dituen eta elkarteko

ordezkariak sinatuta (izen abizenak eta NAN zenbakia adieraziz)

c. Aurrekontuarekiko desbideratze esanguratsuak

d. Gastuen zerrenda sailkatua eta ekintzaren antolaketan sortutako gastuen justifikazioa. Fakturak edo ordainagiriak Xaxau Kultur Elkarteari izenean aurkeztu behar dira. Ordainagirien kasuan dirua jaso duenaren izen abizenak, NAN zenbakia eta diru kopurua zehaztu behar dira agiri edo errezipo originalekin edo originalen kopia konpultsatuekin.

e. Diru-sarreraren zerrenda sailkatua

f. Programatutako jardueren dokumentazio grafikoa (kartelak, liburuxkak, prentsa oharrak, etab.).

g. Jardueraren balorazioa.

h. Diruz lagundutako jarduera finantzatu duten beste diru-sarrera edo -laguntza batzuen zerrenda zehatza eta haien zenbatekoa eta jatorria.

i. Dagokion dokumentazioa ere erantsi behar da. Bestelako laguntzarik ez bada jaso, hala adierazi behar da.

Dokumentazio hori jaia amaitzen denetik kontatzen hasita, gehienez ere hiru hilabeteko epean aurkeztu beharko du Xaxau Kultur Elkartek.

Laugarrena.- XAXAU Konpartsak egitarauaren gainean egindako publizitatean (kartelak, esku programak....) Bergarako Udalaren laguntza duela adierazi beharko du, tamaina ikusgarri batetan, XAXAU logoaren alboan eta adierazita laguntzailea dela. Betebehar hau ez bada betetzen, 4. puntuari jasotako diru-laguntza automatikoki %5ean murriztuta geratuko da.





Bergarako
Udala

Bosgarrena.- Txosten ekonomikoan justifikatutako gastua aurkeztutako aurrekontuan jasotakoa baino txikiagoa balitz, Udalak eskatu ahal izango du diru-ekarpenaren zati bat itzultzea. Txosten ekonomiko horretan Xaxau Kultur Elkartek egitarau honetarako izandako bestelako diru-sarrerak ere agertu beharko dira. Beraz, baliabide propioekin lortutako diruarekin eta Udalak edota beste entitate batzuk emandako diru-ekarpenarekin Xaxau Kultur Elkartek gastua baino diru sarrera handiagoa lortuko balu, Udalak eskubidea izango du diru-ekarpen osoa edo zati bat itzultzea eskatzeko, edo diru-ekarpenaren bigarren zatia eman gabe utzi edo partzialki emateko. Dena dela, gastua aurrekontuan jasotakoa baino handiagoa izan bada, Udalak ez du diru-ekarpen berririk egingo.

Udalak Xaxau Kultur Elkarteari egindako diru-ekarpen osoa edo zati bat itzuli beharra dagoela erabakiko balu, diru kopuru hori zuzenbide publikoko sarreratzat hartuko da.

Seigarrena.- Xaxau kultur elkarteak lehenengo klausulan jasotako ekitaldia aurrera eramateko udalak bere gain hitzarmen honetan espresuki hartzen ez dituen betebeharrak guztiak betetzeko konpromisoa hartzen du, eta horien artean daude besteak beste honako hauek:

- a) Erramu Zapatuko herri bazkarian eta ondorengo ekitaldian kontratatu dezakeen pertsonalaren kostuak beregain hartzea.
- b) Aurkeztutako egitaraua aurrera eramateko beharrezko diren elementu guztiak jartzea.
- c) Udalak egingo dituen ikuskapenak ez oztopatzea.
- d) Bergarako Udala jakinaren gainean jartzea baldin eta Udalak diru-ekarpenera egiten duen jarduerarentzat beste laguntzarik edo ekarpenik lortuz gero.
- e) Beste nonbaitetik diru-ekarpenik jasoko dela jakin bezain azkar jakinarazi behar zaio Udalari, eta, betiere, azken zatia ordaindu baino lehen.
- f) Gutxienez sei urtez gordetzea jasotako diruari eman zaion erabilera agertzen duten agiri originalak. Epe horretan, Bergarako Udalak horrela erabakiz gero, dokumentu horiek aztertu ahal izango ditu.
- g) Bazkaria iragartzeko kartelak egitea eta 466 lagunentzako bazkari txartelak ateratzea.
- h) Bazkari egunean udal pilotalekuan ez da kartel edo antzerakorik jartzerik egongo, bakarrik Txapa irratia, Xaxau elkarteari bazkariaren antolakuntza lanetan eskaintzen dion laguntzaren arabera.
- i) Frontoian ez da pertsona/talde bat irainduko duen kartelik/irudirik jarriko, eta norbaitek jartzen badu berehala kentzeaz arduratuko da.
- j) Frontoian ez da irudi/esaldi sexistarik duen kartelik jarriko, eta norbaitek jartzen badu, berehala kentzeaz arduratuko da.
- k) Frontoian ez da alkoholaren edariaren kontsumoa sustatuko duten kartelik jarriko eta norbaitek jartzen badu berehala kentzeaz arduratuko da.
- l) Frontoian Udalerriko hizkuntzaren erabilera irizpideak jarraituz, euskarak derrigorrezko presentzia nabarmena izan beharko du ahozko zein idatzizko edozein adierazpidean.
- m) SGAEkin dauden betebeharrak XAXAU konpartsak gestionatu beharko ditu, eta ordainketarik balego, ordaindu.
- n) Frontoiko lurzorua estaltzeko gomak jartzeko 6 pertsonako lan-taldea jartzea erramu zapatuko bezperan, Apirilak 11an, ondorengo ordutegiarekin: 21:00 - 22:30.
- o) Gomak jasotzeko, frontisetik hasita, beste 6 lagun jartzea ondorengo ordutegiarekin: 20:00 - 22:30. Udaleko langile 1 joango da nola jaso behar





Begarako
Udala

- diren argibideak ematera.
- p) Ordutegia; Udal pilotalekuko ekitaldia 18:00erako bukatuko du Xaxau elkarteak, eta ordu horretarako udal pilotalekuko kantxatik pertsona guztiak irtenda egon beharko dute. Era berean, Xaxaukoek bazkarirako erabilitako aulki eta mahaiak errebote ondoan utziko dituzte batuta 18:30erako, Aulki-ko langileek denak multzoan jaso ditzaten.
 - q) Adin txikikoei alkohola ateratzea debekatuta dago eta betebehar hau bermatu beharko da.
 - r) Txartelen erreserba: Udalarekin adostu den bazkariaren prezioa errespetatzea eta Udalari 35 bazkari txartel doan ematea (horietatik 27 trikitilari entzatzat, 8 joaldunentzatzat eta 4 txartel gordetza udaleko zinegotzientzatzat (gero ordainduko dituzte)).
 - s) Bazkaria prestatu. Bazkarian aukera zeliako hala nola beganoa egongo da.

Menua:

1. Txorizo eta txanpinioiak (Begarako azokan erositakoak) zizka-mizkak eta patata frijituak
2. Oilasko izterrak parrilan erreta edo baba zuriak menu beganoan.
3. Begarako gozo-dendetako postrea
4. Kafea
5. Ogia (Begarako okindegietakoa), edaria (ura, ardoa, sagardoa 2 kupeletan, patxarana, belar likorea)

Prezioa: 15€.

Antolatzaileek menuan aldaketak egiteko eskumena izango dute beharrezkoa bada, baina beti ere Begarako Udalari jakinaraziko diote aldez aurretik.

- t) Bazkaria zerbitzatu.
- u) Dena jaso.
- v) Bazkariaren zabalpena egiterakoan Begarako Udalaren laguntza jaso dutela azaldu beharko du Xaxau elkarteak.
- w) Bazkarirako beharrezkoa den erantzukizun zibileko poliza beregain hartzea.

Zazpigarrena.- Udalak egingo duen diru-ekarpenaz gain, helburu bera duen beste edozein diru- laguntza ere jaso daiteke.

Hala eta guztiz ere, diru-ekarpenak (Udalarenak berak edo beste batzuenak batuta) eta/edo bestelako sarrerak batuta ezingo du inola ere altuagoa izan diruz laguntzen den jardueraren kostua baino.

Zortzigarrena.- Diru-ekarpena egiteko kontuan hartu diren baldintzetakoren bat aldatuko balitz, edo Udalarenaz gain beste administrazio batek edo entitate pribatu edo publiko batek emandakoa jasoko balitz, gerta liteke emandako kopurua aldatzea.

Bederatzigarrena.- Diru-ekarpena berrikusi egingo da eta, egoki bada, kendu, baldin eta hauetakoren bat gertatzen bada:

- a) Diru-ekarpenak bete beharreko baldintzak bete gabe gelditzea.
- b) Diru-ekarpena erabiltzea lortu beharreko helburua ez den beste helburu baterako.





Bergarako
Udala

Hamargarrena.- Udalak ofizioz egiaztatuko du Bergarako Udalarekiko ordainketak egunean dituela eta jarduera burutu ahal izateko Bergarako udalarekiko betebeharrak guztiak betetzen dituela.

Baldintzak edo betebeharrak betetzen direla egiaztatzeko, Bergarako Udalak honako kontsulta hauek egingo dizkie beste administrazio batzuei:

- Foru Ogasunak
- Zerga-betebeharrak egunean izatea.
- Gizarte Segurantzak:
 - Gizarte Segurantzako betebeharretan egunean egotea.

Interesdunak era arrazoituan bere datuak kontsultatzearen aurka egiten badu, dirulaguntza izapidetu ahal izateko behar den dokumentazio guztia aurkeztu beharko du. Hala badagokio, honako dokumentu hauek aurkeztu beharko dira:

- Dagokion Foru Ogasunaren ziurtagiria, zerga-betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duena.
- Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duten Gizarte Segurantzaren ziurtagiriak.

Hamaikagarrena.- Hitzarmen honetan aurreikusita ez dagoen guztirako, honako hauek aplikatuko dira: Diru-laguntzak arautzen dituen 38/2003 Estatuko Legea, azaroaren 17koa; lege hori garatzen duen 887/2006 Errege Dekretua, uztailaren 21ekoa; Bergarako udaleko dirulaguntzen ordenantza orokorra; eta Bergarako aurrekontuetako udal araua.

Hamabigarrena. - Alde bietako batek honako hitzarmen honetan harturiko betebeharretako edozein beteko ez balu, beste aldeak hautsi ahal izango luke, eta kalte-ordainak eskatu.

Eta horrela jasota gera dadin, bi aldeek, agiri honetako edukiarekin ados egonik, hitzarmen hau sinatzen dute goian jasotako leku eta datan.

IDAZKARIA
Mª Concepción Ugalde Izeta



ALKATEA
Gorka Artola Alberdi

XAXAU KONPARTSA
Iosu Agirre Gurrutxaga